

LABURPEN EXEKUTIBOA

bultzatu 2050



Bultzatu 2050 Hiri Agendaren aurkezpena

Europar urbanizazio mailarik handiena duten eskualdeetako bat da Euskadi. EUSTA-Ten datuen arabera, Euskadiko herritarren % 2 bakarrik bizi dira 2.000 biztanletik beherako udalerrietan; hau da, landa-inguruneke udalerrri esaten diegun horietan.

Espanian populazio-dentsitate altuena dutenen artean bigarrena da gurea, Madrilgo Erkidegoaren atzetik. Euskadiko hiru metropoli eremu nagusiek 1,55 milioi pertsona biltzen dituzte. Horrek esan nahi du hiru eremu horietan biltzen dela euskal populazioaren % 71,56. Beraz, Euskadi hiritarra da batez ere, baina lurraldearen banaketak bilbe eten bat marrazten du, landa-ingurunea eta hiri-ingurunea tartekatuz, elkarren osagarri.

Hazkunde ekonomikoko, iraunkortasuneko eta gizarte-kohesioko aukerak eskaintzeko Euskadiko lurraldearen potentziala hobetzera zuzendutako politika publikoen sistematizazio-ahaleginaren, orientazio estrategikoaren eta koherentziaren emaitza da Bultzatu 2050 Euskadiko Hiri Agenda.

Agenda eratzeko prozesuan, analisia, prospektiba eta kontsulta txertatu ditugu eta horien ondoren, dokumentu bizi bat onartu dugu. Plan bat da, izaera inspiratzailekoa eta estrategikoa, Eusko Jaurilaritzak lurraldearen hiri-errealitateari buruz epe luzerako egin

beharreko gogoeta bideratzeko gai dena, eragile garrantzitsuekin eta garapen jasagarrian interesa duten alderdiekin etengabeko elkarrizketan.

Bultzatu 2050 Euskadiko Hiri Agenda ez da plan hutsa. Aurrez lurralde eta sektore mailan eginiko plangintzaren gainean eraiki eta proiektatu da, Lurralde Antolamenduaren Gidalerro berrietan oinarrituta eta testuingurua, berriz, nazioartea du, Europa, Basque Country 2030 Agenda ezartzeko esparrua.

Cure herrialdeak, gure erakundeek eta herritarrek bide luzea dugu oraindik egiteko, hemendik hogeita hamar urterako ezarri dugun helmuga horretara iristeko. Denborazko erreferentzia horretan, seguru asko, ehun ekonomiko berria eta ikuspegi berriak izango ditugu etorkizuneko erronkei erantzuteko; jada gure oraina diren erronkei erantzuteko, alegia. Horiek horrela, mugikortasuna funtsezkoa izango da hiri adiskidetsuago eta erresilienteagoak eratzeko; hiri-erronkei erantzunak emateko teknologikoki aurreratutakoak izango diren hiriak eratzeko.

Etxebizitza-eredua baldintzatuko dute, halaber, aldaketa demografikoek eta kultura arloko aldaketek. Gero eta ohikoagoa izango da etxebizitzetan osasun-teknologiak txerztatzea eta bizitzeko formula partekatutakoak

sortzeko bidea jorratuko dugu. Malgutu egin beharko da, beraz, etxebizitza-eredu klasikoak eta orain dugun eredia birgaitu egin beharko da hirien berroneratze osoaren testuinguruan.

Aipatu dugun data horretan, klima-aldaketaren eragina arintzeko eta haren arriskuetara egokitzeko neurriak hartuak izango ditugu eta aurrera egingo dugu ekonomia karbonogabetzeko bidean. Trantsizio horretan, gainera, baztertze energetikoa sortzeko arriskua eta beste ondorio sozial txar batzuk saihestu beharko ditugu.

Aipatu dugun helburu hori ez dago hain urrun ere, eta horra iristeko, ahalegin kolektibo handia egin beharko dugu. Apustu politiko argiak behar ditugu, inbertsioak, aliantza publiko-privatuak eta bateragarri egin beharko ditugu ekimenerako askatasuna eta guztiona den horren kudeaketa publikoak. Hori guztia planteatzen du aurkeztera goazen Bultzatu 2050 Hiri Agendak.



Iñaki Arriola
Ingurumen,
Lurralde Plangintza eta
Etxebizitza Saila

Zer da Bultzatu 2050?

Historian lehen aldiz, gizateria landatarra baino hiritarra da. Mendeko lehen hamarkada hauetan, munduko biztanleriaren erdia baino gehiago hirietan bizi da. Horrek esan nahi du aldaketa handia izan dela gure planetarekiko harremanean elkar ulertzeko moduan. Mugarri hori, aro *hiritarra* izenekoaren hasiera zehaztu zuena, Europar Batasunean XX. mendean lortu zen. Urbanizazio mailarik handiena duen kontinentea da.

Baieztape horretatik abiatuta, hazkunde ekonomikoko, iraunkortasuneko eta gizarte-kohesioa aukerak eskaintzeko Euskadiko lurraldearen potentziala hobetzera zuzendutako politika publikoen sistematizazio-ahaleginaren, orientazio estrategikoaren eta koherentziaren emaitza da Bultzatu 2050 Euskadiko Hiri Agenda.

Erregulazioaren abiapuntua honako hau izan da: azterketa, prospektiba eta kontsulta, izaera inspiratzailekoa eta estrategikoa, eta horrek bideratu du Eusko Jaurlaritzaren lurraldearen hiri-errealitateari buruzko epe luzeko gogoeta, eragile garrantzitsuekin eta interesa duten alderdiekin etengabeko elkarriketan.

Bultzatu 2050 ez da besteak bezalako plana. Plangintzako aurreko lanetatik abiatuta eraikitzen eta proiektatzen da eta Euskadin hiri-lurraldeko erronken eta ahalmenen ikuspegitik kokatzen ditu, betiere, lurralde osoaren hiriko eta tokiko politiketarako erreferentzia-testuingurua eskainiz, Eusko Jaurlaritza, Foru Aldundiak eta Udalerri mailetan.

ONU-Habitatetik ezarritako helburuen eta Garapen Jasangarriaren Helburuen (GJH) ildo berean, Bultzatu 2050ek hiri-eredu propioaren, jasangarriaren eta bizikidetzakoaren aldeko apustua egin du, kalitate handiko hirigintzan oinarrituta, eta Eusko Jaurlaritzako sailen politikentzako koherentzia-esparru bat eratu du, jarduera horiek lurraldean duten hiri-inpaktuari lotuta.



Kontseilu Aholkulariaren bilerak

Akademia
Eragile pribatuak
Administrazioa





Parte-hartze sozialeko tailerra

Herritar antolakuntza
Adituak



Administrazio-tailerra

Udalerriak
Foru-aldundiak
Eusko Legebiltzarra



bultzatu
2050



Bultzatu 2050, jada eraikita dagoenaren parte

Bultzatu 2050en garapena ez da hutsetik hasi Euskadin: Eusko Jaurlaritzak Agenda 2030 ezartzeko testuinguru propioa garatu du, baita epe luzeko lurralde-plangintza egitea ere. Horiek Hiri Agenda garatzen deneko araudi- eta politika-oinarria osatzen dute. Hiri Agendaren helburua Euskadiren bultzada nazioarteko ahaleginekin bateratzea da; eta horrela, GJHak betetzen direla laguntzen da.

Horrela, Bultzatu 2050-Euskadiko Hiri Agenda Eusko Jaurlaritzaren planen eta estrategien ildo berekoa da eta bat eginda dago, bereziki, Garapen Jasangarriaren Helburuekin eta Basque Country 2030 Agendarekin. Hala, ezarritako xedeek nahiz kudeaketa-adierazleek Euskadik 2030erako ezarri nahi duen osagarritasunari eta etorkizun-ikuspegiari ekarpena egiten diote.



Erreferentzia-testuinguru zabala

- Agenda 2030
- Hiri Agenda Berria
- Europako Hiri Agenda
- Espainiako Hiri Agenda
- Beste tresna batzuk:
 - Alkateen ituna
 - Chefchaueneko aitortpena

Euskadiko erreferentzia-testuingurua

- Lurralde Antolamenduaren Gidalerroak
- Euskadi Basque Country 2030 Agenda
- Euskal Adierazpena
- Udalsarea 2030
- Klima 2050

Politiken koherentzia-testuingurua

- Ekonomia eta berrikuntza:
 - 10 plan eta estrategia
- Inklusioa eta erresilientzia soziala:
 - 16 plan eta estrategia
- Ingurumen-jasangarritasun:
 - 11 plan eta estrategia
- Gobernantza:
 - 2 Ekimen

Bere ezaugarri propioak dituen errealitate hiritar bat

Euskadi, nagusiki, lurralde hiritarra da eta Estatuko dentsitate handienetakoa du. Hiru hiri-eremu nagusietan Euskadiko herri-tarren % 75 baino gehiago bizi dira eta herri-tarren % 78 baino gehiago biztanletik gorako udalerrietan bizi dira.

Euskadi, lurraldearen konfigurazioa dela-eta, **eskualde hiritar polizentrikoa** da eta hiru hiri-eremuekin batera, bada hiri ertainen sare bat ere, **landa- eta natura-ingurunea-rekin lotura estua** duena. Bere morfologiari eta identitateari eusten dio eta horien arteko lotura da Euskadiren nortasunaren bereizgarrietako bat. Euskadi hiritarra ulertzeko, Euskadi hiritarrek landa-ingurunearekin, inguruan duen kapital naturalarekin –hiri-sarearekin lotzen dena– duen lotura ulertu behar da, naturaguneen sarea eta askotariko errealitate horren lotura diren azpiegiturak ulertu behar dira.

Kulturalki Euskal Hiria esaten zaion hiri-eskualde polizentriko honek erreferentziazko esparru bat ezartzen du, arlo sozialean, enpresa arloan eta herritarrean nortasun partekatu sendoa duena, udalerrri dinamikoan, foru-aldundien eta Eusko Jaurlaritzaren bidez gauzatzen den maila askotako gobernantza duena, administrazioaren mailen arteko adostasunean oinarritutako lankidetzarako eta koordinaziorako testuinguru batean.

Hiria-landakoa-naturalaren izaera espezi-fikoaengatik, Euskadik lurralde eta azpiegitura berde oso garatuak ditu. Era berean, itxura guztien arabera, Euskadi aldaketa klimatikoak inpaktu txikia eragingo duen Europa hegoaldeko eskualdea baldin bada ere, eta bertako ekonomikaren izaera industrial den bezalakoa izanagatik uraren eta beste baliabide batzuen kontsumoak arrotz gabe hidrikoen gaineko gehiegizko presiorik eragiten ez badu ere, nabarmendu behar da klima-aldaketa asimetrikoa dela, eta kostako eremuetan, biztanleriaren % 70 bizi den eremuetan, zaurgarritasun handia duela.

Gainera, mix energetikoa energia ez berri-ztagarrien mende dago (gehiegi) eta orografia eta lurralde-banaketa direla eta, autopartikularraren erabilera intentsiboa egiten dugu oraindik ere; izan ere, lanpostuetara egiten diren lekualdaketen % 50 baino gehiago garraibide horren bidez egiten da.



Erronka estrategikoei erantzunez, 2050erako bidean



Planetaren etorkizuna hiritarra da: 2008tik, biztanleriaren erdia baino gehiago hirietan bizi da eta horren efektu ekonomikoak eta sozialak gizateria osora iristen dira. Bultzatu 2050en Euskadiko Hiri Agendaren helburua Euskadiko hiri ereduari laguntzeaz gain, ondasun publiko orokorren horniketaren ikuspegitik, Nazio Batuen Hiriko Agenda Berria ezarritako helburuak lortzen laguntzea da. Horretarako, beharrezkoa da hiriek etorkizunean aurre egin beharreko erronka nagusiei erantzutea.

Hiriek hainbat ingurumen-erronkari egin behar diote aurre: hiriek negutegi-efektuko gasen guztizkoaren % 70 baino gehiago sortzen dute. Hori dela eta, karbonoan ekonomia neutrorako trantsizioa, 2050. urterako Europar Batasuneko estrategian zehaztuta dagoen moduan, birdiseinuaren eta kudeaketaren gakoetako bat izango da. Baina ez da bakarra: baliabide naturalen kudeaketa eta hondakinen tratamenduak eta ezabatzeak lehenetsun berri batekin egin dute bat hiriko ekosistemen babesaren eskutik. Horretarako, ezinbestekoa da proposatzen den hiri-eredu urbanoa planteatzea, baita hori egia bihurtzen lagunduko duten politika publikoak ere.

Ingurumen-erronkekin batera, erronka sozialek erronka handiei egin behar diote aurre: aldaketa demografikoak, desberdintasunerako joerak eta bereizkeria-arriskuak hirietan, horiek guztiek ezbaian jartzen dute hiriek eskubideetan, batez ere etxebizitzarako sarbideari buruzkoan, hiriko bizitza aberatsa egiteko beharrezko baliabideak eskaintzeko duten gaitasuna.

Pertsonen nazioarteko mugikortasunaren hazkunderako joerak hiriei ere eragingo die. Aniztasun- eta harrera-testuingurua eskaini beharko dute talenturako eta lanetara kualifikaturako konpetentzia etorkizuneko joera nabarmenetakoa izango den munduan.

Modu berean, eta ahalmen ekonomikoaren zati handi bat biltzen duten eremu gisa, hiriek, arlo honetan, erronka garrantzitsuei ere egin behar diote aurre. Hauek dira hiriek erantzun beharreko erronka nagusietako batzuk: enplegu-sorrerarik gabeko hazkunde ekonomikoko garaien mehatxua, balio-kate orokorren birkonfigurazioa eta horien txertaketa lortzeko beharra, eta eskalako ekonomien arteko kontraesana, jarduera ekonomikoa eremu jakin batzuetan pilotatzeko joera izaten baitute, eta hurbiltasunean oinarritutako sistema ekonomikoa mantentzeko beharra.

Azkenik, teknologia berriak bat-batean sartzeak, datuen ekonomiak izandako igoerak, enpleguaren automatizazioak eta negozio-eredu berriak sortzeak hiri berritzaileak eta sortzaileak, teknologikoki aurreratuak, herritarrek atzean geratuko ez direnak, mantentzeko eta sustatzeko aukera berriak dakartzate.

Berariazkoa izan arren, Euskadi ere gertatzen ari diren eraldaketa makro horietan murgilduta dago; hainbat tentsio ari dira sortzen, eta Euskadiko hirien eta hiri-nukleoaren testuinguruan, erronka estrategiko jakin batzuk planteatzen dira makrojoera horiek Euskadin hirien eta hiri-nukleoaren testuingurura eramatearen ondorioz:

- **Kohesio sozialari** lotutako erronkak: nola bermatu aniztasuna eta nola egin aurre berdintasun-faltari.
- **Ekoizpen- eta kontsumo-harremanei** lotutako erronkak: nola eraiki ehun ekonomiko erresilientea, dinamikoa eta errealitate ekonomiko berriei zabalik dagoena.
- **Hirigintza-ereduaren** erronkak: nola lortu gure hirien osagai diren ehunen arteko bizikidetzeta eta nola hobetu landa- eta natura-ingurunearekin duten harremana, espazio publikoen konfigurazioa eta erabilera berria eta mugikortasun berria sustatuta.
- **Hirien gobernantzari** lotutako erronkak, erakundeetan eta arlo sozialean dugun ehun sendoa indartuz, datuen iraultza aprobetxatuz eta gure aurrerabide sozioekonomikoa neurtzeko adierazle berriak planteatuz.

Hirirako eskubiderako lehentasun estrategikoak

Erronka horietatik abiatuta, Bultzatu 2050 Euskadiko Hiri Agendaren helburu nagusia zera da, **hirirako eskubidea baliatzeko baldintzak bermatzea, ekonomia-, gizarte-, ingurumen- eta teknologia-trantsizioko inguruabar batean.**

Hirirako eskubidea, pertsona guztiek izan dezaten etxebizitza duina izateko eskubidea, oinarrizko zerbitzuak eskaintzen dituen eta sozialki balioetsitako auzo osasungarri bat izatekoa; hiriaren gainerakoarekin artikulaturik sare osoa mugikortasuna bermaturik; ekintzailtza, enplegua eta prestakuntza aukerak eskainiko dituen; gizarteratzea bermatuko duena eta biztanle guztien partaidetza eta berdintasun politiko eta juridikoa gauzatuko dituen.

Hirirako eskubidea esaten diogun hori gauzatzeko, hiri-politika berriak egokitu, birdiseinatu eta abiarazi behar dira, aipatu dugun trantsizioak dakartzan erronkei erantzuteko. Jasangarritasun mailak altua izan behar du eta hiriak bizikidetzarako espazio gisa eta ekonomiaren, gizartearen, kulturaren eta politikaren arloan trukeak egiteko espazio gisa berreskuratu behar ditugu.

Euskal hiri-eredu hori sendotzen aurrera egiteko, agenda bat proposatzen da, erronka globalei eta erronka horiek Euskadin izango duten inpaktuari erantzunez: 8 lehentasun estrategiko izango dira, zeinak esku hartzeko 31 ardatzetan eta 105 jarduera-ildotan Lehentasun horiekin batera, bost dimentsio transbertsal izango dira: agendaren hainbat mailatako gobernantza, genero-ikuspegia, jardueren integralitatea, lurraldetiko ikuspegia eta segimenduaren eta ebaluazioaren aldeko apustua.



Erronkei aurre hartuz

Etorkizuneko erronkak



Helburuak mugatzen

Lehentasun estrategikoak

Zeharkako dimentsioak



Jarduerak zehaztuz

Esku-hartze ardatzak

Jarduera esparruak



Etxebizitzarako eta oinarrizko hornikuntzetarako eskubidea bultzatzea

Mugimenduan dauden hiriak: mugigarritasun berri baten alde

Hiri-plangintzako eredu jasangarri berria

Hiri berritzaileak eta jakintsuak

Hiri dinamikoak eta lehiakorak

Hiri jasangarriak eta erresilienteak

Bizi-kalitatean oinarritutako hiriak

Aniztasuna eta inklusioa identitate adierazle gisa

Etxebizitzarako eta oinarrizko hornikuntzetarako eskubidea bultzatzea

Gizarte-
kohesiorako
ekarpena



Pertsona guztien bizitza-zikloko une bakoitzerako etxebizitza duina, eskuragarria eta irisgarria izateko eskubidea sustatzea.

ETXEBIZITZARAKO SARBIDEA

ERAIKINAK ETA ETXEBIZITZAK BERRONERATZEA ETA BIRGAITZEA

OINARRIZKO HORNIKETAK

INGURUA ETA EREMU PUBLIKOAK

- **Hiria birsortzearen eta hiriguneak dentsifikatzearen** aldeko apustua, erakuntza berrien garapenaren aurrean.
- Herritarren herri mailako beharrak eta behar sozialak betetzeko dagoen **etxebizitzaren parkearen egokitzapena eta dibertsifikazioa**, lurralde eremu berberetan erabilera mistoa sustatuz.
- **Alokatzeko merkatuaren** eta etxebizitzaren erabilera, sarbide eta kudeaketa **formula berrien** aldeko apustua: co-housing, alderantzizko hipotekak eta abar.
- Pertsonentzako eta familia **ahulentzako etxebizitzarako sarbidea izateko eskubidearen berme-programak** ezartzea, espazio-bereizketa saihestuz.
- Lurralderako **gutxiengo zerbitzuak eta oinarrizko horniketak** ezartzea.
- Davos 2018en aitortpenarekin bat etorritik, **goi mailako kalitatearekin eraikitako eremua sustatzea**, erreferentzia berezia eginez eraikitako inguruaren kalitate arkitektonikoari, bai ikuspegi kulturaletik, bai bizitegi ikuspegitik.

Mugimenduan dauden hiriak: mugigarritasun berri baten alde

Garraio
publiko
multimodala



Hiriko eta hiri arteko mugikortasun-sistema berriz diseinatzea igorpenetan baxua den mugikortasuna, formula malguak, jasangarriak eta seguruak eskaintzen dituena lortzeko

MUGIKORTASUN JASANGARRIA

HIRI ARTEKO MUGIKORTASUNA

HIRI BARNEKO MUGIKORTASUNA

MUGIKORTASUN MULTIMODALA

- **Ibilgailu partikularraren arabera gutxitzearen** eta mugigarritasuneko zerbitzu jasangarrien eskaintza integratua hobetzearen aldeko apustua (herri-tarren behar pertsonaletarako egokiak).
- Hiriko eta hiriarteko garraio-azpiegiturak **mugikortasuneko modalitate berrietarako** egokitzea: ibilgailu elektrikoak, partekatuak, bizikletak eta abar.
- Hiriko eta hiriarteko **irisgarritasun uni-bertsala** bultzatzea, batez ere mugikortasun mugatuko pertsonentzat.
- **Herritarren erantzunkidetasuna eta protagonismoa** hobetzea mugikortasun segurua, jasangarria eta eragingarria kudeatzeko garaian.
- **Hiriko eta lurralde mailako plangintza** txertatzea mugikortasun jasangarriaren elementu bultzatzaile gisa.
- **Neurri txikieneko udalerrriak** mugikortasun jasangarriko erronketan barneratzen direla bermatzea.
- **Mugikortasuneko beharrak gutxitzea** bideratutako politikak finkatzea.

Hiri-plangintzako eredu jasangarri berria

Hiri konpaktuak



Lurralde Antolamenduaren Gidalerroekin bat etorriz, hiriguneen birdentsifikazioa eta birsortzea, kalitatezko eremu publikoen eta elkarbizitzako eremuen sorrera eta guztiontzako irisgarritasuna lehenetsiko duen hiriko plangintza-testuingurua ezartzea.

ONDAREA BABESTEIA

LURRALDEAREN ETA ONDARE NATURALAREN ERRESILIENTZIA

LURZORUAREN ERABILERA JASANGARRIA

ESPAZIO BERDINTASUNA

- **Hiri konpaktuaren aldeko apustua**, birdentsifikatutako eta birsortutako guneekin, elkarbizitzarako eremuekin eta lurzoruaren erabilera dibertsifikatuekin (hiriko berrikuntza eta jasangarritasuna izango lirateke plangintzaren irizpideak, aurretik eraikita dagoenaren erabilera bultzatuta).
- **Gertutasunaren aldeko apustua harreman sozialetan eta ekonomikoetan**, lurraldean segregazioa eta desberdintasun sozialak ekidinda.
- **Hiri-plangintzako tresnen erabilera, arintasuna eta kudeaketa hobetzea**, emaitzak ezartzeko, kudeatzeko eta ebaluatzeko mekanismo berriak txertatuta.

- **Kultur ondarearen** erabilera eta balorizazioa babestea eta bultzatzea.
- **Lurraldearen errealitatean** oinarritutako hirigintza-tresnen erabilera bultzatzea, **behetik-gora egindako ikuspegiarekin**.

Hiri berritzaileak eta jakintsuak

Berrikuntza pertsonetatik, pertsonekin eta pertsonentzat



Euskadiko lurraldearen dimentsio berritzailea sustatzea, ezagutzea errazagoa den ekosistema eta dinamismo eta sormen kultural, ekonomiko eta ingurunekoa duena den heinean

IKERKETA, BERRIKUNTZA ETA TEKNOLOGIA

KONEKTAGARRITASUNA

TEKNOLOGIKOA EZ DEN BERRIKUNTZA

SMART CITY-AK

- Euskadiko hirietan elkarri konektatuta dauden **jarduera-egitura berritzaileak eraikitzeke lana** bultzatzea aukera berriak sortzeko beharrezkoak diren azpiegitura eta politikekin.
- **Hiri sortzaileak** bultzatzea, talentua eta ikaskuntza oinarri hartuta. Hori izango da berrikuntza sozial eta ekonomikoaren bektore nagusia eta pertsona izango da horren guztiaren oinarritzko helburua eta erdigunea.
- **Eragile anitzeko parte-hartzea**, aliantza publiko-pribatu-sozialak eta berrikuntzako eta hiriko sormeneko ekimenen garapenean oinarritutako berrikuntza sustatzea.
- **Berrikuntza-politikak** tokiko errealitate ugarietara **bideratzea** bultzatzea.
- **Hiriko teknologia bitarteko gisa txertatzearen** aldeko apustua egitea helburu gisa txertatu behar, eragile ugarien parte-hartzea eta konplizitatea jasota. Smart City izenekoetatik (hiri adimentsuak) Wise City (hiri jakintsuak) hirietara aurrera egitea.

Hiri dinamikoak eta lehiakorrak

Hiriguneak jarduera ekonomikoarekin



Euskadiko hiri-egitura finkatzea, Europako hegoaldeko ekonomia industrial dinamikoagoenetako baten eremu egituratzailea den heinean, herritarrentzako enplegua eta ongizatea sortzeko gai dena.

EKOIZPEN ETA KONTSUMO JASANGARRIAK

KALITATEZKO ENPLEGUA

TOKIKO EKONOMIA ERRESILIENTEA

EKONOMIA ZIRKULARRA

- Ekonomiaren motor nagusia **industria lehiakorra, jasangarria eta berritzailea** dituen Euskadiren aldeko apustua.
- **Ingurumenari eta gizarteari dago-kienez arduratsua den ekonomia eta enpresa mailako eredia** bultzatzea. Pertsonen beharrak izango ditu oinarri eta ingurunea errespetatuko du.
- **Hiriko izaera duten**, eta enplegua eta aukerak sortzen dituzten **proiektu ekintzaile berriak** abian jartzeko beharrezko politikak eta azpiegiturak bultzatzea.
- Toki mailan **aliantza publiko-pribatuak** sortzea babestea, batez ere enplegu berriak sortzeko programetan.
- Hiriko garapen ekonomikoa **jarduera ekonomikorako lurzoruaren erabilera dibertsifikatuen** logikaren arabera interpretatzea, gertutasuneko ekonomiarako guneak sortuta eta horiek erabilera eksklusiboetan (komertziala, industrial, bizitokikoa, tertziarioa) bereiztea ekidinda.
- **Enplegu egonkorra eta kalitatezkoa sortzearen** eta langileen kualifikazioaren aldeko apustua egitea Euskadiko ekonomiaren lehiakortasunerako bektore nagusi gisa.

Hiri jasangarriak eta erresilienteak

Klima aldaketaren kontrako hiriak



Euskadiko hiriak erreferente gisa kokatzea jasangarritasunerako, igorpenetan neutraltasunerako eta alferrik ez galtzeko trantsizioaren abangoardian.

KUTSADURAREN ETA INGURUMEN KALITATEAREN KONTROLA

KLIMAREN ALDEKO EKINTZA

BALIABIDE NATURALEN ETA HONDAKINEN KUDEAKETA

BIOANIZTASUNA ETA EKOSISTEMAK

- Hiri-inguruneko jarduerak **jasangarritasuneko ikuspegi integraletik** bideratzea, agindu guztietan duen ingurumen-inpaktua gutxituta eta ingurumeneko erronka berrietara egokিতuta.
- Hirigunean, **Klima 2050 Estrategiaren** baitan ezarritako helburuak betetzea.
- **Ingurumen-politika bektore ekonomiko** eta hirietan enpleguko, ongizateko eta osasuneko aukera berriak sortzeko bektore gisa dimentsionatzea.
- **Erantzunkidetasuna, lankidetzea eta parte-hartzea** bultzatzea eragile guztien artean: sektore publikoa, pribatua, soziala eta herritarrak.

Bizi-kalitatean oinarritutako hiriak

Bizitza-kalitatearen aldeko apustua



Hiri osasungarriak sustatzea, segurtasun-beharrei, herritarrentzako gizarte-ongizateari eta ongizate pertsonalari erantzungo diotenak aldaketa demografikoko testuinguruan.

ESTALDURA UNIBERTSALA ETA OSASUN SISTEMARAKO JASANGARRITASUNA

KALITATEZKOA ETA BERDINA DEN OSASUN ARRETA

BIZITZA ETA AISIALDI OHITURA OSASUNGARRIAK

OSASUN ARLOKO BERRIKUNTZA ETA IKERKETA

- **Ongizate pertsonaleko eta sozialeko kontzeptu integrala** sustatzea, herritarrei beren bizitza-ziklo osoan lagun egingo diena.
- **Herritarrak aktibatzea** guztiontzako bizitza-ohitura osasungarriak elkarrekin sortzeko.
- Zaintzekin bateragarriak eta egoera pertsonal ahulean dauden pertsonetikiko adiskidetsuak diren hiri-planen ezarpena bultzatzea, **bizitza-kalitate altua** Euskadiko hirien nortasun-ezaugarri gisa kontsolidatuta.
- **Esku-hartze estrategikoak bizitza-kien gunean** kokatzea arreta sozio-sanitarioaren sistemako ardatz gisa. Arreta-zerbitzuetan eta hornikuntza publikoetan gertutasunari lehentasuna ematea.

Aniztasuna eta inklusioa identitate adierazle gisa

Pertsonak eta komunitateak erdigunean



Herri eta hiri anitzak eta sozialki kohesionatuak direnak finkatzea

GIZARTE KOHESIOA

BELAUNALDIEN ARTEKO BERDINTASUNA ETA ANIZTASUNA

HEZKUNTZA ETA PRESTAKUNTZA EKITATIBOAK ETA INKLUSIBOAK

KULTURA ETA AISIALDIA PERTSONA GUZTIENTZAT

- **Inklusio soziala dimentsio anitzeko fenomenotzat** hartzea, pertsonari lehentasuna ematen dion fenomenotzat eta lurraldeari, bizi-kalitateari, errentei eta herritarren eskubideak erabiltzeko aukera izateari eragiten dion fenomenotzat hartzea.
- **Askotariko auzoen eta hirien** aldeko apustua egitea, ekonomiari, alde sozialari eta jatorriari lotutako arrazoiei lotutako espazio-bereizketaren aurka eginez.
- Hiriak eraldatzea, batez ere **kolektibo zaurgarrienei** arreta eskaini diezaien.
- **Partaidetza soziala** sustatzea eta hobetzea.
- **Aukera-berdintasunaren**, aniztasunaren kudeaketaren eta inklusio sozialaren arloan **zeharkako** ikuspegiaren alde egitea.
- **Zaintzen duten hiriak eta komunitateak** sustatzea, herritarren bizitza erakitzeke ardatz gisa.
- **Bizitzearen –habitatearen zentzuan– alde egitea**, arkitekturaren eta bizigarritasunaren kalitatea bizi-kalitatearen eta kohesio sozialaren eta kulturalaren ardatz gisa hartuta.

Nola jarriko dugu abian?



Hiri Agendaren maila askotako gobernantza

Hiri Agendaren beste oinarri batzuekin lotuta dagoen oinarria da gobernantza. Hiri-gaietan, Eusko Jaurlaritzaren jardueraren estrategikorako arlo bakoitzak bere gobernantza-sistema propioa du eta horrek erraztu egiten du Jaurlaritzako sailen, Foru Aldundien eta udalen arteko elkarlana.

Bultzatu 2050 Euskadiko Hiri Agenda ezartzeko prozesuaren partaidetza-gobernantzak udalerrri eta hiri-errealitate bakoitzaren ezaugarriari erantzun behar die. Errealitate horretatik abiatuta, errealitate hori osatu egin behar da Agendaren gobernantza eratu duen erreferentziatzako esparru batekin. Honako hauek ditu oinarriak:

- Bultzatu 2050 foroa: Hiri Agenda dinamizatzeko eta Hiri Agendari jarraipena egiteko foroa.
- Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamendurako Batzordea: maila askotako elkarriketarako espazioa, lurraldeko plangintza abian jartzeko.
- Open Government Partnership: Euskadiko gobernu irekia garatzeko helburuarekin, lankidetzarako eta elkarlanerako esparrua.
- Udalsarea: jasangarritasunarekin konprometitutako udalerrien sarea.

Genero-ikuspegia txertatzea

Hiri-garapenerako politikek eraldatzeko duten gaitasuna baliatu behar dute gizonen eta emakumeen berdintasuna jarduera lehenetsi gisa hartuta aurrera egiteko. Programetan eta estrategietan ikuspegi hori txertatzeko, jardueren xede diren lekuetan dauden talde sozialen arteko aldeei erreparratu behar zaie; baita talde sozial horietako bakoitzak dituen beharrei, arazoei eta itxaropenei ere. Hiri Agenda abiapuntu sendoa da, hortik abiatuta, jauzi kuantitatibo zein kualitatiborako oinarriak finkatzeko eta hala, atea zabal dadin hiri-garapenean esparruan benetako berdintasuna lortzera bideratutako genero-politikak berriak sortzeko.

Ikuspegia lurraldetik

Bultzatu 2050en abiapuntua, definitzen duen elementua, alegia, bere esku-hartzeen lurraldetasuna da, Lurraldearen Antolamenduen Gidalerroek ordezkatzen duten oinarriaren bidez, hori baita abian jartzearen geruza nagusia. Hala, helburuak aintzat hartuko dira eta ahalik eta koherentzia eta osagarritasun handiena izatea bilatuko da. LAG gidalerroak izango dira esku-hartzeak egituratzen dituen oinarria.

Integraltasuna


Hirietan bizi diren eta hiriak erabiltzen dituzten pertsonen zentraltasuna abiapuntu gisa hartuta, hiri-izaera edo dimentsioa duten politika publikoen hirirako eskubidea gauzatzeko beharrezko diren baldintzak eraginkortasunez beteta antolatzen dira, kontraesanak, gainjartzeak edo eskumenen arteko gatazkak ekidinez.

Jarraipena eta ebaluazioa

Bultzatu 2050ek jarraipenerako eta ebaluazioa egiteko mekanismo bat eratu du eta azterketa kuantitatiboa zein kualitatiboa egiteko modua emango du, bere adierazle-sistemaren eta kontuak emateko mekanismoen bidez:

- **Aldizkako txostenak egitea**
- **Tarteko ebaluazio arina**

Hiriaren errealitatera eta erronken eta gertaeren bilakaerara **egoki daitekeen tresna malgu** gisa hartu behar da Bultzatu 2050. Horretarako, gobernantzaren esparruan, aldatzeko eta errealitate berrietara egokitzeko aukera ere aurrez ikusia dago.



Agenda Euskadi
Basque Country

20
30

GARAPEN
IRAUNKORRERAKO
HELBURUAK

11 HIRIETA
KOMUNITATE
IRAUNKORRAK